

Kaixo ikasle eta familia!

Eskutitz honen bidez familia guztiei jakinarazi nahi dizuegu Hezkuntza Sailak daraman **Hezkuntza Publikorako politika** ez dela batere egokia. Nabarmena da irakaskuntzaren langileek ditugun **lan baldintzak** eragin zuzena duela ikastetxeetako eguneroko martxan eta, orokorrean, **hezkuntzaren kalitatean**. Halaber, guk, irakasleok, zuen seme-alabei ahalik eta heziketa onena eskaintzeko konpromisoa berretsi nahi dizuegu. Hona hemen puntu gatazkatsuenak:

*Ba al dakizu EAEn hezkuntzara bideratzen den inbertsioa Europar Batasuneko bataz bestekotik oso urrun dagoela? Ba al dakizu 2018. urterako Eusko Jaurlaritzak "historiako aurrekontu handienak" izanda, hezkuntzara 2010ean baino gutxiago bideratu nahi duela?*

### **HEZKUNTZA PUBLIKOAN INBERTSIOA HANDITU!**

*Ba al dakizu Lehen Hezkuntzan irakasle bat gaixotzen denean ordezkoa 4. egunetik aurrera bidaltzen dutela, eta Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide heziketan astebete pasatuta?*

### **ORDEZKAPENAK LEHEN EGUNETIK BETE!**

*Ba al dakizu gela bakoitzean gero eta ikasle gehiago egonik, irakasle kopurua ez dela igo maila berean eta, ondorioz, jarraipen pertsonala egitea gero eta zailagoa dela; gainera, eskolako proiektuetarako ordu kredituak (Hizkuntza Normalkuntza, Agenda21, Elkarbizitza, IKT, Liburutugia, etab.) murriztu eta kasu askotan desagertu direla?*

### **IKASLE-RATIOAK TXIKITU, PLANTILAK HANDITU!**

*Ba al dakizu 10 irakasletik 4 behin-behinekoak direla eta urtero aldaketa handiak daudela plantiletan?*

### **IKASTETXEETAKO LANGILEAK EGONKORTU!**

*Ba al dakizu irakasle bat gaixotzen denean soldata murrizten zaiola?*

### **BAJAK ZIGORGABETU!**

*Ba al dakizu erretiroa erraztu eta laguntzeko neurriak desagertzearen ondorioz, irakaslegoaren bataz besteko adina zahartzen doala?*

### **ERRETIROA LAGUNTZEKO NEURRIAK BERRESKURATU!**

*Ba al dakizu gure ikasleen ebaluazioa Madrildik eta LOMCEn arabera erabakitzen dutela? Ba al dakizu egungo hizkuntz ereduen bitartez ez direla ikasle guztiak euskalduntzen? ... eta galdera sorta luze zabalarekin jarrai genezake.*

**Horregatik guztiagatik, iaz ELA, LAB eta STEILAS sindikatuek deituta, mobilizazioei hasiera eman genien eta ikasturte honetarako "udazken beroa" iragarri genuen. Horrela, azaroan zehar Haurreskoletako, Sukalde eta Garbiketako eta Heziketa bereziko lankideek egindako borrokari lekukoa hartuz datorren azaroaren 27an irakasleok BORROKA ASTEari ekingo diogu.**

Astean zeharreko ekimenez gain **AZAROAREN 30an GREBA** egin eta 12:00etan **manifestazioak** egingo ditugu hiriburuetan (Bilbon, Gran via 85ean; Gasteizen, Bilbo Plazan; Donosti, Bulebarrean).

## **HEZKUNTZA PUBLIKO DUINAREN ALDE LAN BALDINTZAK HOBETU**

Estimadas familias:

Por medio de esta carta queremos transmitir la falta de compromiso de la Consejería de Educación para con la Escuela Pública. Es evidente que las condiciones laborales del profesorado influyen negativamente en el día a día de los centros con la consiguiente pérdida de calidad. **Una vez más, el profesorado os quiere transmitir el compromiso claro y firme para ofrecer a todo el alumnado la educación que merece.**

*Sabías que los Presupuestos de 2018, “los mejores de la historia”, destinarán a Educación menos dinero que los de 2010?*

#### **MAYOR INVERSIÓN EN LA ESCUELA PÚBLICA!**

*Sabías que vuestro hijo e hija están 4 y cinco días sin profesor cuando está de baja?*

#### **SUSTITUCIONES DESDE EL PRIMER DÍA!**

*Sabías que el ratio, número de alumnos y alumnas por clase, está aumentando?*

#### **REDUCCIÓN DE RATIO! AUMENTO DE PLANTILLA!**

*Sabías que las horas para ciertos proyectos ( Normalización del euskara, Agenda 21, Biblioteca, Nuevas Tecnologías, Convivencia) se han reducido, cuando no desaparecido?*

#### **APUESTA POR LA INNOVACIÓN!**

*Sabías que 4 de cada 10 profesores y profesoras son interinos y que cada curso se dan cambios considerables en las plantillas?*

#### **FIJACIÓN DEL PROFESORADO!**

*Sabías que las bajas del profesorado se castigan con descuento salarial? No podemos enfermar?*

#### **BAJAS SIN CASTIGO**

*Sabías que al endurecer las medidas de jubilación, la media del profesorado aumenta de manera muy considerable?*

#### **RECUPERAR EDAD DE JUBILACIÓN! REJUVENECIMIENTO DE LAS PLANTILLAS!**

*Sabías que la evaluación del alumnado se rige por las directrices que llegan desde Madrid por medio de la LOMCE? Sabías que el actual modelo educativo **no asegura la euskaldunización** del alumnado?*

*Podríamos seguir con más preguntas. Por desgracia, las respuestas no llegan, la Administración calla y no responde a las verdaderas necesidades de la Escuela Pública, relegandola, recortandola.*

Por ello, los sindicatos ELA, STEILAS y LAB han organizado un calendario de movilizaciones que han venido a llamar “Otoño caliente”, de manera que todos los colectivos de la Pública (Guarderías, sector de la limpieza, sector del comedor y profesorado) durante el mes de noviembre han mostrado sus reivindicaciones.

La próxima semana, 27-1, el profesorado tomará el testigo de la “Semana de lucha”. Junto con una serie de actividades, el profesorado está llamado a la **HUELGA** el jueves **30 de noviembre**. Ese día se realizarán manifestaciones en las tres capitales a las 12:00.

**POR UNA ESCUELA PÚBLICA DIGNA Y POR LA MEJORA DE LAS CONDICIONES LABORALES**